

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Begoña Iturbe Linzoain

*Bergara,
Gipuzkoa
(1958)*

Aurkibidea



Biografia



Iturbe kale-baserrian jaioa, guraso biak Bergarakoak zituen: ama kaletarra, ez zen euskaraz oso ondo moldatzen; aita, berriz, baserrikoa zen. Mariaren Lagundian egin zituen ikasketak, Batxilergoko azken bi urteak izan ezik: institutua zabaldu zuten, eta bertara bidali zituzten. Ondoren administrari ikasketak egin zituen Mariaren Lagundian. Ikastetxean haur hezkuntzan lan egitea eskaini zioten, eta halaxe hasi zen irakasle lanetan. Gero Magisteritza ikasi zuen. Erretiroa hartu arte egin zuen bertan lana. Begoña Kapanagarekin batera egin genion elkarrizketa.

Zintak

BER-364

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-02-15
- **Iraupena:** 97 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Mariaren Lagundian neskak; mutilak Haur Hezkuntzan bakarrik

- **Erref:** BER-364/004
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:02:21. **Bukatu:** 00:04:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Begoña ibili zen sasoian, Mariaren Lagundia ikastetxeak bi zati zituen: ordaindutako eskola eta publikoa. Irakasleak desberdinak ziren batean eta bestean. Neskentzako bakarrik zen, baina Haur Hezkuntzan mutilak ere egoten ziren. Mutilak gero eskola publikora edo Bidegurutzetako ikastolara joaten ziren. Gero handik Akademiara.</p>

Transkripzioa

- Begoña Iturbe: Lagundian zeren, alde batetik, pagodunak edo pagatzen zeбенak, eta bestekaldetik... Baiña publika zan haura.
- Baiña mutillak be bai?
- B.I.: Mutillak zeren bakarrik Haur Hezkuntzan, sasoi hortan, ze nik dauzkat lagunak, mutillak, ibili zienak Lagundian. Haur Hezkuntzan, e.
- Begoña Kapanaga: Baiña ni sartu nitzanian? 4 urte neuzkanian?
- B.I.: Zure edadekuak die. Ni... adibidez, Iñigo Juaristi, Manu Larrea ta honetxek horrek egon zien -lehen "parbulitos" zan- parbulitosen egon zien Lagundian. Eta, karo, bakarrik Bergaran zauan Mariaren Lagundia emakumindako, ze, karo, hori sortu zan... ze gure amak be bai danak ibili izan die hor. Baiña klaro, zan eskola bakarra emakumiendako zana. Baiña, klaro, ni akordatzen naiz, ni hasi nintzanian, ni 58kua naiz, eta ni hasi nintzanian, karo, zeren bi: "pago" eta "ez pago". Eta "ez pago" zan publika, publika zan, ze irakasliak diferentia zeren. Orduan, klaro, aukeria zauan, baiña... bai...
- Baiña mutillak horra...?
- B.I.: Bai, bai, bai, mutillak gero ya juan eitten zien. Eta mutillak normalian... bueno...
- B.K.: Aber, nere aitzia sartu zanian, [ez dakit...], orduan ya mutillekin zeren, e.
- B.I.: Bai, diferentia. Bai, bai, baiña gure sasoi...
- B.K.: Nere sasoi ez, nere sasoi neskak.
- B.I.: Sasoi haretan mutillendako zauan bai publika eta bai ikastola zauan. Ikastola zauan Lasa parian, zure ama bizi dan tokixan, Lasa parian. Nik hori dakit, ze nere anaia, ni baiña bi urte zaharraua, haura ibili zan ikastolan. Ikastolan eta gero...
- B.K.: Bidegurutzetan zauan.
- B.I.: Bidegurutzetan. Ikastolan, eta gero hortik juaten zien Akademiara, zeren Lide eta honetxek.
- Bai, Maria Victoria..
- B.I.: Maria Victoria eta honetxek, bai. Eta hori dakit, ze nere anaia, ni baiña bi urte zaharraua, egon zan hor.

2. Euskalduntze prozesua Mariaren Lagundia ikastetxean; B eredia

- **Erref:** BER-364/021
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:27:53. **Bukatu:** 00:31:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Begoña Iturbe izan zen Mariaren Lagundia ikastetxean euskaraz eskolak ematen hasi zen lehenengoa, 3 urteko umeekin. Ondoren, Pilare hasi zen 4 urtekoekin. Lekuz aldatu zirenean, beste bi irakasle sartu ziren eta euskarazko eskola gehiago ematen hasi ziren. Hasieran D eredia zen, baina B eredia ere sartu behar izan zuten, ama hizkuntza gaztelania zuten ume asko zeudelako. Euskalduntzea Haur Hezkuntzatik hasi zuten eta eskola osora zabaltzen joan

zen. Irakasleak ere euskaldundu egin behar. Irakasle asko errioxarrak ziren.</p>
<p>

Transkripzioa

- Ta, bueno, lenengo urtetan, bueno, hasi ziñaten, ze esan dozu, Pilare...
- Begoña Kapanaga: Pilare Mujika, Vega eta ni hiru urteko gelan.
- Eta euskerazko klasiak emoten zuek izan ziñeten lehenenguak: lehenengo zu eta gero...
- B.K.: Lehenenguak, bai. Lehenengo gu, gero Pilare, ta gero Juan giñan, ba, gehitzen.
- Gehitzen. Ta hor be hasi ziñeten lehenengo umiekin ta gero... zela Jun ziñeten? hori, euskalduntze plana edo, ze in ziñuten, zela izan zan?
- B.K.: Bueno, aber akordatzen naizen... Aber, hor izan zan, lehenengo, kolegixo berrixan, oin ez daguana, hasi giñan hola. Gero, pasau giñanian beste alde, etorri ziñala... bueno, etorri ziela beste bi pertsona, Bego eta Nerea, hortik Pilare zertu ein zan, beste talde bat hartu zeban, eta hor hasi giñan D eredu, nik uste dot D eredu zala, D ereduakin. Eta gerora sartu zan B eredu be. Haur Hezkuntzan egon zien eredu bixak: B eta D. Ze urtetan? Ezin dotsut zer..., ez naiz akordatzen ze urtetan, hiruroge... Zu akordatzen za? Ze ni urtia ez naiz akordatzen.
- Begoña Iturbe: Ez, ni urtia ez, baiña ni akordatzen naiz, ni hasi nintzanian lanian, ee... orduan ni lehenengoko umiak zien D ereduak. Baiña handik -esango nuke- pare bat edo hiru urtera B eredu ipini bihar izan giñuan ama hizkuntza erdera zeukenak ume asko zerelako, eta orduan, bueno, aholkularitza bat etorri zan puxkat aztertzer eta esan zoskun banaketa in bihar giñuala: alde batetik, D eredu eta bestekaldetik B eredu. Eta orduan hor hasi giñan bi eredu, nahiz eta B ereduana dana euskeraz hitz egin, bueno, ba, beste mailgutasun batekin edo itten giñuan. Eta urte batzuk pasa zirenan, beste azterketa bat etorri zan eta orduan ya dana D eredu bihurtu zan. Baiña bai egon zala hor... B eredu.
- B.K.: B eredu ta, gaiñera,... bueno, urte dexente...
- B.I.: Bai, baiña arrazoia izan zan, karo... ba, adibidez, Aranzadi ikastolan ikastolara juaten zien ume euskaldun petuak zienak eta, bueno, ba, erdera gehixau itten zezenak edo ama hizkuntza erdera zeukenak nik uste dot gehixau etortzen ziela gure... gure ikastolara. Eta, orduan, derrigor ipini behar izan giñuan...
- B.K.: B eredu.
- B.I.: ... B eredu, bai. Bai, bai. Nahiz eta dana euskeraz hitz egin... bai.
- Eta lehenengo urte horretan hasi ziñeten Haur Hezkuntzatik edo... ez? euskeraz emoten klasiak. Eta zaharrauekin ze izan zan, zeoze graduala?
- B.I.: Bai.
- B.K.: Graduala, bai.
- Bai, lehenengo txikixenekin ta gero...
- B.I.: Karo, hor egon zan momento bat nun Haur Hezkuntza dana euskeraz zan eta beste mailletan erderaz zan. Baiña poliki-poliki hori joan zan...
- B.K.: Gehitzen.
- B.I.: ... gehitzen, ba, lortu arte ikastetxe edo ikastola osua euskeraz izan arte. Karo hor... in behar izan zan ez bakarrik ikasliekin, baizik eta irakasliak be bai, asko zeren erdaraz itten zezenak, zeren monja honetxek nik ez dakit zeaittik, ohitura zeuken Erriostatik ekartzen irakasliak, ze bazeren irakasle asko errioxarrak zienak. Ez dakit zeaittik, baina bueno. Baiña, bueno... horrek, klaro, euskeraz ikasi behar izan zezen eta... bueno, gero ya hasi zan bertako jentia. Bueno, hor egon zan aldaketa oso haundixa. Nik uste dot hor mobimentu oso haundixa egon zala: bertako

jentia, jente euskalduna...

- B.K.: Mojak desagertu zien...

- B.I.: Hori da, hori da.

- B.K.: Mojak desagertzen juan zien poliki-poliki...

3. Mariaren Lagundiko mojak eta "hermanita"k

- **Erref:** BER-364/022

- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:31:58. **Bukatu:** 00:34:02

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Mariaren Lagundiko mojen artean mailak zeuden: mojak eta "hermanitak". Mojak dotea zutenak izaten ziren, eskolak ematen zituztenak eta gaztelaniaz hitz egiten zutenak. "Hermaniten" artean, berriz, inguruetakoak ziren asko, euskaldunak; haiekin harremana euskaraz izaten zen. Mojen artean, asko espainiarrak ziren, baina bazeuden bertako nazionalistak ere.</p>

Transkripzioa

- Begoña Iturbe: Gero, monja artian be bai nik uste dot oin berriz azkenengo urtetan egon dala giro euskaldunaua lehen baiño, ze hona etorri izan zien, nik uste dot, ze gu juaten giñan monjak bizi dien tokira, eren etxera, eta erak eurak euren artian euskeraz eitten zeбен, lehen ez zana gertatzen.

- Begoña Kapanaga: Baiña eske hor monjen artian be pasatzen zan... zeren...

- B.I.: Bueno, klaro, diferentzia.

- B. K.: ... bi motako monjak: zeren monjak eta hermanitak.

- B.I.: Hermanitak.

- B.K.: Hor be klasiak zeren. Orduan, monjak zienak eta klasiak ematen zittuztenak horrek zien, ba, gertautako zerak ta horrek eitten zeбен erderaz, ta zien -esatera noia- zien erdeldunak. Baiña "hermanitas" artian asko zien ingurukuak edo bertakuak; orduan, eren giruak ez zeukan zerikusirik beste monjekin.

- B.I.: Euskeraz itten zeбен.

- B.K.: Horrek itten zeбен euskeraz. Orduan, gu joaten baziñan sukaldera edo sartzen baziñan giru horretan, monja horrekin beti eitten giñuan euskeraz. Horrek zien hermanitak. Monjekin ez, horrekin bai. Ta eren artian zeuen kriston aldia.

- B.I.: Bai, baiña eren... monjan artian be bai, bazeren diferentziak, ze bazeren batzuk nahiz eta... karo, hor zauan... dotia bazeuken, zien las...

- B.K.: Monjak, monjak.

- B.I.: ... las... elegantiak. Eta bestiak, dotia ez zeukenak, hermanitak.

- B.K.: Hermanitak

- B.I.: Baiña hor dotia zeukenen artian be bai bazeuan diferentzia, ze bazeren bertakuak, ba, donostiarrak, bilbotarrak eta hemen ingurukuak, eta horrek zien nazionalistak nazionalista, eta, berriz, beste batzuk ba...

- B.K.: Nazionalist... nazionatistak bai...

- B.I.: ... ba zien “fachistas”, “fachistas”.
- B.K.: ... eta beste batzuk zien espaiñolitak
- B.I.: Hori da. Hor euren artian be bai zauan...
- B.K.: Zauan... Espaiñolak zeren asko eta hamengo...
- B.K.: Hemenguak bertakuak euskaldunak zienak be bai zeren, bai, bai.
- Baina klasiak emuten...
- B.I.: Erderaz.
- B.K.: Monjak. Hor zeren monjak. Hermanitak hor ez zien sartzen.
- B.I.: Ez.
- B.K.: Orduan, horrek zien... Eta batzuk errespetauko zebe gehixau geuria eta beste batzuk ez.
- B.I.: Hori da, hori da.

4. Baserritarrei edo euskaraz egiten zutenei barre egiteko joera

- **Erref:** BER-364/023
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:34:02. **Bukatu:** 00:35:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Beraiek ez dute ezagutu eskolan zigorrik euskaraz hitz egitearren. Begoña Iturbek gogoratzen du Angiozarko ikaskideek elkarrekin euskaraz egiten zutenean, gelakide batzuek barre egiten zietela. Garai batean bazegoen baserritarrei edo euskara gehien egiten zutenei barre egiteko joera.

5. Ama euskaraz egiten saiatzen zen, ondo jakin ez arren

- **Erref:** BER-364/026
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:39:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Iturbe kale-baserrian jaio zen. Aitak euskaraz egiten zuen, baina amak ez zekien oso ondo. Aitajauna nafarra zen. Umetan bazekien euskaraz, baina gurasoak hil zirenean Madrilera eraman zuten eta ahaztu egin zuen euskara. Begoñaren ama beraiei euskaraz egiten saiatzen zen, umeak zirenean. Aita gazterik hil zen, baina auzoan bizi ziren amamak eta izebak euskaraz egiten zuten. Lau urterekin hasi zen eskolan eta han dena gaztelaniaz. Anai-arreben artean gaztelaniaz egiten zuten eta auzoko lagunekin bietara egingo zuela uste du.

6. Anaia nagusia ikastolara; neskak Mariaren Lagundira

- **Erref:** BER-364/027
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:41:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Anaia nagusiagoa ikastolara joan zen lehenbizi eta gero handik Akademiara. Ahizpa eta biak Mariaren Lagundian ibili ziren. Ama eta izeba ere bertan ibili ziren eta hura zen ordua neskentzat eskola ohikoena. Anaia gazteena Labe Garaietako eskolan ibili zen lehenbizi eta gero eskola publikoan.

7. Ordaindutako eskolak eta doakoak Mariaren Lagundian

- **Erref:** BER-364/028
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:41:32. **Bukatu:** 00:44:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Mariaren Lagundia ikastetxean ordaindutako eskolak eta doakoak egoten ziren. Bera ordaindu gabekoetara joaten zen, baina ez du oroitzapen txarrik. Bazeuden ezberdintasun txiki batzuk: ordaintzen zutenek uniformea zeramaten, adibidez. Leku ezberdinetan egoten ziren eta ez ziren nahasten. 11 urterekin doako eskoletakoek ere aukera izan zuten Batxilergoa egiteko eta han denak bateratu ziren. Hiru urte egin zituen Mariaren Lagundian eta gero institutuan jarraitu zuen.

8. Nola hasi zen irakasle lanean Haur Hezkuntzan

- **Erref:** BER-364/029
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:44:35. **Bukatu:** 00:45:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Administrazio-ikasketak egin zituenean, ea euskaraz zekien galdetu zioten, Haur Hezkuntzan eskolak ematen hasteko. Horrela hasi zen irakaskuntzan lanean eta gerora atera zuen Magisteritza titulua. Orduan jendeak ez zuen nahi izaten Haur Hezkuntzan lan egiterik eta, gainera, ez zegoen euskaraz egiten zuen jende asko.

9. Gaztetatik euskal giroan: Elementaleko euskara eskolak, kultura, "Juventudes parroquiales"

- **Erref:** BER-364/030
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:45:42. **Bukatu:** 00:49:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

15 urte inguru zituela, Elementalean ibili zen euskara ikasten lagun batekin batera. Uriarte eta Juaristi irakasleak ditu gogoan. On Serafinek eramaten zituen gero etxera. Bazuen euskal giroko lagun taldea eta euskaraz hitz egiteaz gain, euskal kultura kontsumitzen zuten, esaterako, Ez dok Amairu taldekoen kontzertuetara joaten ziren. "Juventudes parroquiales"en oso sartuta egon zen eta denera apuntatzen ziren.

10. "Juventudes parroquiales", gazteen bilgunea; era askotako ekintzak antolatzen zituzten

- **Erref:** BER-364/031
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:49:12. **Bukatu:** 00:53:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

"Juventudes parroquiales", gazteen bilgunea. 18 urte behar ziren sartzeko, baina beraiek aurretik hasi ziren, tranpak eginda. Musika, kontzertuak, kabalगतak... Dantzari eguna ere bertatik antolatzen zen. Gauza asko antolatzen ziren. Konbenio kalean zegoen eta apaizena zen lokala. Zuzendaritzan batek gidatzen zuen; beraiek ere egon ziren zuzendaritzan. Hilero bazkidetza ordaintzen zen. Taberna ere bazegoen eta handik ere lortzen zen dirua. Aste bakoitzean kuadrilla batek zuen tabernaren ardura.

11. Ariznoako musika; kontzertuak eta bertsolariak frontoian

- **Erref:** BER-364/032
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:53:20. **Bukatu:** 00:55:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

Laburpena:

Bera gaztea zenean, Urretxindorrek taldea zegoen Bergaran. Ameslariak eta Urretxindorrek taldekoak beraiek baino zaharragoak ziren. Ariznoa dantzalekuan musika egoten zen; "El pozo" deitzen zioten. Iñaki Arriaranek jotzen zuen han. Euskal abeslariak edo kontzertuak frontoian egoten ziren. Bertsolariak ere egoten ziren. Beraiek beti joaten ziren, nahiz eta hasieran behintzat piperrik ulertu ez.

12. Euskal dantza klaseak

- **Erref:** BER-364/036
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:57:49. **Bukatu:** 00:59:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Begoña Iturbek dio 18 urte ingururekin Aranzadi ikastolan hasi zirela hiru lagun Moisesekin euskal dantzak ikasten. Begoña Kapanagak, berriz, dio bera Ramon Etxaniz txistulariarekin ibili zela Zabalotegin euskal dantzak ikasten 12-13 urte zituela.

13. Jende asko UNEDeko euskara eskoletara

- **Erref:** BER-364/039
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:00:26. **Bukatu:** 01:02:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Mariaren Lagundian irakasle lanean zebiltzanean, eskolan bertan jasotzen zituzten euskara hobetzeko zenbait ikastaro. Gerora, UNEDen hasi zen D eredua ateratzeko. Jende asko etortzen zen kanpotik, euskal giroa egoten zen. Bergarako tabernetan jendeak egiten zizkien komentarioak. Sasoi batean sarrera-azterketa egiten zen eskaera handia zegoelako.

14. Zenbait kuadrillak gaztelaniaz egiteko ohitura

- **Erref:** BER-364/040
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:02:54. **Bukatu:** 01:05:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Beraiek lagun-taldean euskaraz egiten zuten arren, adineko jendeak gaztelaniaz egiten zuen Bergaran. UNEDera zetorren jendearekin euskara gehiago entzungo zen. Garai batean gaztelaniaz egiten zuten batzuek gaur egun euskaraz egiten dute. Garai batean gaztelania dotoreagoa zela eta euskara baserritarrena zela uste zen. Ohitura-kontua ere bada: behin pertsona batekin gaztelaniaz egiten ohitutakoan, zaila izaten da euskarara aldatzea.

15. Mariaren Lagundia euskalduntzen; gurasoen mugimendua

- **Erref:** BER-364/043
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:06:30. **Bukatu:** 01:09:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Begoña Iturbe Mariaren Lagundia ikastetxean lanean hasi zenean, hasieran ez zen erraza umeei euskaraz eginaraztea. Hiru urteko umeen artean askok ez zekiten euskaraz. Pixkanaka kaleko giroa ere aldatzen joan zen, guraso euskaldunei esker, eta euskararen aldeko mugimendu bat egon zen. Hasieran D eta B ereduak egon ziren, baina pixkanaka eskola euskalduntzen joan zen dena D eredura pasa arte.

16. Mariaren Lagundia euskalduntzen; irakasleak, urteetako lana

- **Erref:** BER-364/044
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:09:29. **Bukatu:** 01:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Mariaren Lagundia ikastetxearen euskalduntze prozesua. Pixkanaka egin zen, Haur Hezkuntzatik hasita. Irakasleak ere euskaldundu egin behar izan ziren. Beraiek sartu zirenean hasi zen aldaketa. Hasieran zuzendariak ere gaztelaniaz egiten zuen eta klaustroak ere gaztelaniaz ziren.

17. Eskolatik kanpora ere euskal giroa bultzatu nahian

- **Erref:** BER-364/045
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:12:08. **Bukatu:** 01:14:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

1975ean hasi zen Bego Kapanaga lehenengo euskarazko eskolak ematen Mariaren Lagundia ikastetxean eta handik aurrera hasi ziren aldaketak. Euskal giroa txertatzen joan ziren pixkanaka. Santa Ageda bezperan guraso eta umeekin kalera irteten ziren. Aranzadi ikastolarekin batera tonbola ere antolatu zuten plazan, dirua biltzeko. Kalera irten beharra ikusi zuten, kaleko giroa euskalduntzeko beharra zegoelako.

18. Mariaren Lagundia: mojen ikastetxe izatetik ikastola izatera

- **Erref:** BER-364/046
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:14:38. **Bukatu:** 01:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Mariaren Lagundia mojen ikastetxe izatetik ikastola bihurtzera bitarteko prozesua. Mojen erabakia zergatik izan ote zen: ikastetxeak ez zuela etorkizunik eta beharrezkoa zela aldaketa ikusiko zuten. Espainian zehar Mariaren Lagundiaren eskola gehiago daude. Kristau eskola izateaz gain, ikastola ere bada; eskolaren izaeraz.

19. Mariaren Lagundiaren aldaketa izugarria; metodologia aldatu beharra

- **Erref:** BER-364/047
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:18:07. **Bukatu:** 01:20:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Beraiek Mariaren Lagundia ikastetxean ikasi zutenez, eskolaren aldaketa-prozesu guztia ikusi dute. Aldaketa handiena garai batean dena gaztelaniaz zela eta guztiz euskaldundu zela. Metodologia nola aldatu den urteetan zehar. Beraiek ez dute Xabier txo liburua erabili izan. Chiquitin liburuak, gaztelaniaz. Pilar Lonarbideren metodologia. Haren ipuinak oraindik erabiltzen dituztela diote. Beharrezkoa da metodologiak berritzea, aurrera egiteko.

20. Verdury hall, Ariznoa eta Egan taldea

- **Erref:** BER-364/049
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:21:55. **Bukatu:** 01:23:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Verdury Hall plazan; dantzara joaten ziren. Ariznoa dantzalekuari "El pozo" deitzen zioten. Igandeetan musika egoten zen: "Espuela fin de semana". Iñaki Arriaranek jotzen zuen zuenean. Errege bezperan Egan taldea egoten zen.

21. Ez dok Amairu taldekoen kontzertuak frontoian

- **Erref:** BER-364/051
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:23:58. **Bukatu:** 01:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ez dok Amairuko kideek frontoian kontzertua ematen zutenean, jendez beteta egoten zen. Gaztetxoak ziren, baina Begoña Iturbek dio kontzertu guztietara joaten zirela.

22. Garai bateko giro politiko gogorra eta manifestazioak

- **Erref:** BER-364/052
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:25:10. **Bukatu:** 01:28:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Garai bateko giro politikoa. Ikurrina debekatuta zegoen. Begoña Kapanagak gogoan du noiznahi guardia zibilak joaten zirela etxera eta atzean ikurrina zuen koadroa ganbaran ezkutatzen zutela, beldurrez. Ikurrinaren legeztatzea. Manifestazio asko egoten ziren eta denetara joaten ziren, gazteak oso inplikaturik zeuden. Guardia zibilak agertzen zirenean, korrika. Garai gogorra izan zen. Aldaketa handiak bizi izan zituzten, bai politikoki, bai sozialki eta baita beste hainbat arlotan ere. Zenbait gertaera esanguratsu.

23. Bonba-abisu faltsuak ikastetxean

- **Erref:** BER-364/057
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:30:40. **Bukatu:** 01:31:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Garai batean ikastetxean telefono-deiak izaten ziren bonba bat zegoela esanez. Lehenengo abisuarekin oso gaizki pasatu zutela gogoratzen du Begoña Kapanagak. Ume guztiak kanpora atera behar izan zituzten eta gurasoak etorri ziren haien bila.

24. Aurrekoek euskaraz egitearren jasotzen zituzten zigorrak

- **Erref:** BER-364/059
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:33:15. **Bukatu:** 01:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Euren gurasoek garai gogoragoak bizi izan zituzten euskararen erabilerari dagokionez. Begoña Iturberen amari ez zioten uzten euskaraz hitz egiten Mariaren Lagundian. Izeba, berriz, Labe Garaietako eskolara joaten zen eta jo egiten omen zuten; askotan bidean geratzen zen eskolara joan gabe, beldurrez. Begoña Kapanagaren amandreari potoak lotzen omen zizkioten zigor moduan, euskaraz egiteagatik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com